

Kolakiala = Koloniala (?)

Asisko Urmeneta

Ez naiz teorizatzailea, baina irudigilea, eta oso manera intuitiboan hurbildu nintzen hizkuntzaren arlora. Honako idazlan hau beraz, nire lanaren ondorioa duzue: jardunak sortu kuestioak, eta horietan bilaturiko erantzun praktikoak.

Demagun komikilariak asteburuko istorio arrunta kontatu nahi duela: gazte batzuen gaupasa, ondoko osagaiak dituela: bidaia, kontzertua, drogaldia, juntadizo bitxia, larru kontuak, joka partida eta jazarpen poliziala hiriko karriketan barrena. Gidoia zertzean, magina

bat buruhauste izanen du testuaren aldetik, izan ere, nola kontatu hori guztia hizkera sinesgarri eta, halaber, konprenigarri batez?

Sinesgarri: manera ez formalaz. Gazte edo ukitu argotikoaz.



1. Binheta: *Haboro, Joseba Koldobika: isur nintirokezulakoan nagozu. (hau ez da sinesgarri).*

Konprenigarri: Edozeinendako.



2. Binheta: (*Hau ez da Hegoaldera pasatzen*)

egoki mintzatzera? Alta, nori interesa zaio biraorikan ez duen *izkuntza garbiya*? ...Horrengatik jotzen ote dute erdarara gazteek?

Izan ere, **hizkera formalak** araua nahi izaten du: horra hor txosten, komendio, arau, zenbat buru hainbat estilo liburu, nahi adina erregela, eta eredu.

Hizkera ez formalaz ari garela, ordea, nora jotzen du hiztunak adierazkortasun eske? Euskalkira, hoberenean. Erdarara, nagusiki.

Zein berezko bekatu dauka harren **Batuak**, erregistro informalik ez baitu? Kondenaturik ote gaude bada beti xuxen eta

1. DIALEKTOAK

Euskalkietan polikromia ikaragarria dago, Hizkera Nazionalaren aberasgarri. Baina eskualde batean gotorra, bortitza eta gordina dena, ondokoan mendrea, melenga eta ezdeusa suertatzen da.

Edo ez da ezaguna, eta ondorioz ez du funtzionatzen.

Edo eta goi mailako lengoaiatako har lezakete bertze eskualdeko hiztunek, izatez arrunkeria dena jatorrikoan. Eta ez dabil.

Egiteko dago euskalkiarteko sailkapena edo *hit paradea*: Iraingarriagoa da **kafrangea**, **pelenda** baino? Eta **katanesa**, **gatia**, **des-**



3. Binheta

Sexu hizkeran euskalkiek berebiziko ekarpena egin liezaio-kete hizkera ez-formalari. Kasurako, **gainkatu**, **zikotu**, **sakatu** zein **zankatu**, aisa bortitzagoak dira, larrua jo edo txortan egin baino. Egokiak beraz gure komikilariarentzat; ordea ezezagunak beren eskualdetatik kanpo. Nola pasatu horiek –eta askoz gehiago– Nazionalera?

Erramoldeak sailkatu ondotik promozioa egin behar da: bonbake-ta mass medietan, adibidez. Ez teleberrietan, jakina, ez eta Argiaren azalean, baina gazteentzako saioetan, irratian, Tban, prentsa berezitan... Sozializatu, azken batean, erabiliaren erabiliz.


laie, hostoila, edo urtentzie zenbatgarrenean koka ranking horretan? Ele hauek hitzaldi ondokoetan bildu ditut, modu asistematiokoan eta han-hemenka; emakume sexuzalearen eremu semantikoari dagozkio.



4. Binheta

2. ERDARA

Erdaratara jo ohi dugu, bereziki gure mintzoaren zati espresiboenetan.



5. Binheta: *Eta zain geundela, viene el hijoputa y se cuela por todo el morro! Eta jendea hantxe, a joderse!*

Erran gabea, batzuek **Espainiera** ra eta bertzeek **Frantses** era (amerikarrek **ingelesera**). Bordel honek ere ez du errazten, beraz, euskaldunen arteko komunikazioa, baina bai gero eta zailagoa egiten elkarrekilako kurutxamendua.

Gaur egun ordea, **euskara ez-formala/gaztea** = **erdara** formula, eguneroko adibide daukagu mass medietan, ustezko umore plusaz. Karikatura nabarmenenak bazter utzirik, har dezagun Egunkariaren gazte gehigarria den Barkatu Ama.Ni ez naiz pijoa, edo eta **Ez paji-llarik egin** ez-formal horiek ez dute aduana pasatzen, ez lexikoa eta ez eta fonetikoa ere.

Interferentzia ez da gaurko fenomenoa, jakina. Ikus dezagun kasu pareta.

1- “Ez da potrorrik hain domestika ez daikeenik, nola emazteki altiba”. J.Lizarraga. Hibridazio abantzatu xamarra: lexikotik syntaxira iragan baita erdal erdua.

Joakin Lizarragak Hizkuntzaren endakatzea ikertzeko sermonario nasaia utzi digu: 3000 orri interferentzietz josirik: ”etxaperro” = etxe-ko txakurra, edo ”Notizia formidablea portzierto” harek gogora ekartzen digu bertze apez haren predikua:

“Begire zazie mihise pintatu batean daudela soldado asko alde batetik eta bestetik gerra emateko; ikusiko tuzie zaldiak nahi dutela saltatu besteen kontra, soldadoek harturik beren lantzak badirudite nahi tuztela batak besteak atrabesatu; beste batzuek daude beren eskopeteki puntarie egiten ja deskargatzeko; eta bihurtzen bazara handik urte batera edo nahi duzunean, eta begiretu mihise hure ikusiko dituzu postura hartan bertan, eta ez dutela daus egin: Es que da pintura bat.”
Martin Jose Markotegik 1777.ean.

2- Hemen zati adierazkorrenak erdara hutsez dira; hurrengo mendean ordezipena erabatekoa izanen da Ibxan.



6. Binheta

Soziolinguistek errana: kontaktuan diren hizkuntza diferenteren arteko harremana luzatzen bada:

1. Iraun egiten dute elkarren ondoan: Muga Sanitarioaren kontzeptua, **Flandria-Walonieta**n . Indar korrelazio orekatua eman behar da horretarako.
2. Hizkuntzak nahasirik, bertze bat berria sortzen da: **Pidgina, Kreolera**. Egoera postkolonial zenbaitzuetan, hizkuntza nazionalaren estatusa ematen zaio *tertium quid* horri. **Tok Pisin** lehenetsi dute Papuan, bertako **Hiri Motu**ren eta koloniaroko **Ingelesa**ren, hau da, bere bi osagaien aurretik¹.
3. Gotorrak ordeztu egiten du ahula. Japonierak **Ainoera** konparazio batera.

Delako mestizaia 2. puntuari baino, 3.ari dagokio, norabide bakarrekoa izan ohi baita: Erdarak euskara. Salbu eta:

- a) Idiolekto abertzalea: “Los burus de herrialde harán la biyera en la guela chiqui”. Esparru militantea jatorrian, gero eta hedatua go zaigu irakaskuntzaren ingurumarietan.

¹ Usu, lehengo kolonoen hizkuntzak berba prestigiodunak utzi ohi dizkio mailagutan kreolerari:

Antonimoak Filipinetako **Zamboangaz**:

Handia: "Grande" Txikia: "Dyutay"

Polita: "Bonito" Itsusia: "?umalin"

Gozoa: "Dulse" Garratza: "Mapa?it"

Goxoa: "Sabroso" Motela: "Mata?bang"

Leuna: "Liso" Latza: "Makasap"

Bertze alde, hizkuntza nazionala errazkiago ordezkatzeko, desprestigiatze kanpaina publikoak diseinatu ohi dira boteretik:

Frantziak Katalunian: "Garen garbiak, Frantsesez mintza!" iturri eta latsatokie-tan, letra larriz.

Ingalaterrak Cymrun: "Leku honetan debekaturik dago lurrera tu egitea eta galeseraz mintzatzea" ostatueta.

- b) Mailegu inkisitorial-polizialak: ezkerre, akelarre, zulo, talde, kale borroka...

Bi kasuotan interferentzia lexikoa baizik ez da, syntaxira iragan gabe.

Gure hizkera informal ahulak, horrenbertzez, hibridazio eta ordezkatzeko ate zabala irekitzen die korpus argotiko gotordun diren ondoko erdara normaldueti².



7. Binheta

Har dezagun **txorrada** hitza, edo metafora. Hegotarron artean unibertsa da. Mutilen sexu atala du erreferentzia, “garrantzirik ez duena” edo, definitzeko. Irudi beretik, hau da, zakiletik sorturiko **pitokeria** dugu guk hobetsi, franko ezaguna eta erabilia Iparraldean, ulermenaren aldetik eta mugarik planteatzen ez baitu.

Baina indar bera daukate txorradak eta pitokeriak? Erabilerak ditu eleak markatzen, eta izan ere, gaur egun eskualde luze

² Lehen baziren baina ezin idatz. “En nuestro Uskara hay maldiciones de muerte, y otros males que por ser tan horrosos no me atrevo a poner”, **Mendigatxak**. “Hay otra expresión más grosera que es tabú.”, **Toribio Etxeberriak**. Orain, oster, idatzi nahi eta lanak.

Orwellen editoreak ezabatu egin zituen kaleko hitzak “Txakurtzikirik gabe Parisen eta Londresen” liburutik, eta betirako galdu zaizkigu; eta **Azkuek** kantu herrikoi batzuk goitik behera kanbiatu, berba originalei “kiratsa zeriellako”.

zabal batean pitokeria dute *number one*, bigarrena **connerie** delarik. Eta, inondikoak ere, nesken sexuari egiten dio omen kasu honetan erdarak. Erreferentziak erreferentzia, edozein hitzek har dezake plus jakin bat, egoki promozionatuz gero. Eta **pitokeriak** bete lezake euskaldunon artean eta maila ez-formalaz komunikatzeko dugun gabezia, **txorrada** edo **koneriaren** aitzinetik.

Itzultzaile, irakasle, musikari, antzerkigile, animatzaile, begirale, komikilari, bertsolari edo idazle, euskalduna franko galdurik dabil hizkera kolokialaren eskasean. Ez bada, beti ere, maila dialektalaz, edo erdaraz.

Nola itzuli publizitateak baliatzen duen amu sasiargotikoa, gazte jendeak biltze aldera? Nola eman Batuaz *móntatelo guapo con tu peña* edo ordezkorik? Nafarroako Gobernuak kanpaina abiatu du; leloa *el polvo es cosa de dos*. Arreta erakarri du etxeko lanak partikatzearen aldeko kanpaina ofizial honek. Euskaraz nola emanen, eta horra erre-gistro informalaeren eredu faltaren paradigma: **hautsa biren arteko afera da**. Erdarazko hitz joku probokatzailea **zendu** egin da.

Kaleko erdaraz inork ez du *trabajo/travail* erraten, baina *curro/bou - lot* (*laburo, tajo, mina...*). Eta gureaz?

Eskatologian, bertze alde, maila infantilean gara oraindik. **Pixa** eta **kaka**. Konpara auzo erdarekin...

Beharbada ez genuke gure burua konparatu behar. Akort; baina afera da euskaldunok erdaldun ere bagarela, eta hizkuntza aldikatzeak erregistro aldaketa eragiten badigu halabeharrez, hor zerbait ez dabil fin. Eta zenbaitzuok informaltasuna maite...

Har dezagun planetako hizkuntzarik normalduena: **ingeleza**. Eta hala bada, bistan dena, botere ekonomikoa eta militarra alde dauzkalako, eta ez izatez bertzeak baino hobe delako. Bada, ingelesak fun-

tzio diferenteak dauzka: nazioartekoa, zibilizaziokoa, nazionala... eta horrela maila guztiak, hizkera kolokialak barne: familiakoa, karrrikakoa, argota... Hizkuntzaren atal aldakorrena argotarena izaki; **Jack Kerouac**-en *In the Road* klasikoa urtero berrargitaratzen dute, eta urte bakotx aldatu behar izaten dituzte argotari dagozkion hitzak eta erramoldeak, gaztetasuna/gaurkotasuna ez dezan gal.

3. BATUA

Euskaraz, ordea, batuak maila bakarra garatu du, eta horixe hizkera administratibo monokordea, Altuberen paranoiez adalaturik. Batuaz ari garela, maila bereaz aritzen dira apezpikua eta ondoko gaztetxeko okupa.


Tximeletak hamaika izen omen ditu euskaraz. Baina ez dakigu *a saco, chutarse, flipar, tener el mono, de puta madre, colocarse, kutre, forrarse, pringao, a toda hostia, chupao...* erraten. Aski adierazgarria izan zait Gasteizko lehiaketa batean aurkeztu den ipuina; kontaketa euskara korrektoaz doa, parranda solas, harik eta sujeta komunetan giltzatu da, eta barne bidaian airatu. Hortik aurrera, festagilearen bakarriketa erdaraz da. Errekurtso falta? Errealitatearen isla? Bietatik?

Batua pixkolatu, lardaskatu, mailakatu, adierazkortasunez markatu, plus gaztea edo argotikoa emateko, **metafora berriak asmatzea** ere, zilegi. Erran gabea. Gerauen sena, umore eta inguruaren arabera.

Lizarragaren bidez badakigu, adibidez, bere garaian hasi zela **mozkortu** metafora baliatzen, modu informalez hasieran, baina denboraren indarrez bere baliokide semantikoak ordeztu arte: “Orai erraten da hordiatatik **mozkorturik**, ta guzia heldu da ongi, ezi nola burua kentzea arbola bati deitzen baita mozkortzea, hala hordia da mozkorbururik gabe”.



8. Binheta



9. Binheta: Erruberan = Behiaren erro-
an behera egitea = Deitzi.

Informala zena, in formol bila-
ka liteke urteen itzulian. Zorionez,
gazteek berriak asmatu dituzte:
bertzeak bertze, **mousea klikatu**
neskendako, **Santageda jo** edo
dadotan aritu mutilendako.

Azkie handiak material
ordainezina biltzen omen zuen
zaharretxeetan, azken agure eta
atsoei galdekatuz; hori bezain
premiazkoa dugu gazte jendea
gaur egun asmatzen ari den
ondarea bildu, sailkatu, eta pro-
mozionatzea. **Promoa** bertze
behin ere.

Zenbaitzuetan lokuzio jato-
rrak fosildu egin dira; bertze zen-
baitzuetan metafora sortu zuen
irudia ahantzi egin da, eta lokuzioa
indargetu: **kanpaia jo** edo **errube-
ran egin**. Nola jotzen ziren kan-
paiak lehen? Zer da errubera?



10. Binheta

Batzuetan, erramoldea bera eboluzionatzen da irudiarekin batera: **idiarena** jotzen zuten lehengoek, eta **irina** oraingoek.

Komikilari dohakabeari lana erraztu nahiz, Zazpiak Batman kolektiboak³ lokuzio ez-formalen zerrenda abiatu du, ondoko jomugak dauzkala:

- Hizkuntza mailakatzea: Guk **afrusa** proposatzen dugu *horteraren* orde. Interneten, itzultzaileek daukaten foroan norbaitek ekarri zuen gure proposa. Hango kritikak eta espantuak, norik asmatua ote zen eta horrelako. Hizkuntzaren elite osatzen duten itzularien artean, inortxok ere ez bide zekien **afrusa** arras hitz normaldua dela Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldaera guztiekin: afruski, afruskeria, afrustu... Belarrira perkutatzen du poliki, eta promozio egoki baten bidez hizkera nazionalera pasa liteke arazo handirik gabe.



11. Binheta

Hori bai: hala suertatuz gero ere, ez nuke hiztegian zera ikusi nahi: **afrus** = **itsusi** = **zatar**. Ez, afrusaren lekua hizkera ez-formalean dukegu, inondik ere ez itsusi-ren sinonimo laua. Oharra: eta bai, afrusa erdararen mailegua duzu, noizbait hartua eta egokitua auzoko **affreuxetik**.

³ Zazpiak Batman kolektiboaren partaide dira, bertzeak bertze, *Jon Alonso, Antton Luku, Kokotxa Nell, Ainize Madariaga, Joserra Uvretx*.

“Mantxut”, “Mantxut Mantxut” eta “Freexkue” liburuak argitaratu dizkie ARGIA aldizkariak.

Mokoroa Power filialean *Kike Amonarriz* eta *Antton Olariagarekin* batera, infizio bat kolaboratzailek egin du ekarpen.

Modema, polita edo eta sauna bezalaxe, ingelesa, latina eta suomieratik hurrenez hurren.

Bizkaierazko **ugerdok** har lezake kutre-ren erranahia? Zubererazko (erderatik lehen) **pergutada** izan liteke marrón edo pringada-ren baliokide? Katalanerazko **klentxa** (orrazkeraren marra) hedatzen ari da kokainaren ordari argotiko gisara, Hegoalde osoan barrena.



12. Binheta: *Klentxari dagozkion metaforak: angulak jan, sudurra zikindu...*

A toda hostia eklipsa dezakete **zalu puta** Lapurdikoak, **fulespidien** Bizkaikoak, **furrindeka** Nafarroakoak? (...)

- Euskararekin harremana aldatzea: ostatua berritzen ari dira, eta kanpoaldean oharrak dio, elebiz: "Mutatzen ari gaitunk, barka...". Biharamunerako, eskutxo piados batek xuxendu du: "Ez da horrela esaten". Hizkuntzaren egoera ez normalak gu ere anormaltzen gaitu ala? Munduko zein kornetretan xuxentzen da tabernako oharra? Noiz emanen diogu eutanasia barnean daramagun filologo tristeari?

Unibertitatean, albistegian, ikastolan, Akademian... hizkuntza zuzena behar dugu, prefosta. Kanean ez, barran ez, ohean ez! Josteta itzuli nahi diogu solasari. Libertitu **liber**-etik heldu omen da, libertatea bezala. Elizanburu apaiz integristak erran bezala: "Eskuara hain zalhua da non erran baititake iduri duela alimalexka pullit bizkarrean hezurrik ez duten batzueri, ZOINAK DOBLA, PLEGA BAITITAZKE NAHI BEZALA, ETA ITZULARAZ NORAT NAHI."

Bidenabar: **mutatu** Axularrek baliatzen zuen (“... camaleona beçain batetan mutha...”, *in Gero*), eta **kornerrak** Leizarragak (“... lurraren lau cornerretan...”, *in Testament Berria*).

- Eta aitzineko bi puntuekin bat, metafora berriak sortu egin ditugu, euskararen plastikotasunaren adibide: nornahik asma baititzake bereak, bere barne unibertsoaren eta lagunarteko umorearen arabera. Eta asmatzekoak direnek iraungiko ahal dituzte gureak!⁴

4. AZKENTA

Erabilerak du markatzen berba edo metafora, giro jakin batean. Eleak berak ez baitu deus ere transmititzen. Konbentzio kultural hutsa da. Humanoaren mugaren marka. Zernahi sar daiteke euskararen baitan, mintzakideok hala akordatzen badugu. Eta edozein marka eman diezaiokegu, erabileraren indarrez. Telebista arras hitz berria da, eta promozio egokiaren ondorioz guztiz normaldua gaur gero.

Erregistro ez-formalak loratzen utzi behar ditugu, LIBERTituz eta JOLASTuz. Bego zuzentzeko arkatz gorria gelako mahai gainean.

⁴ Euskara interbenitu nahi honetan, komikilaria jostatu ere egiten da; marrazkia bezain langai plastikoa baita hizkuntza. Horra hor, adibidez, alokutibo berri zoroak asmatzeko bide umoretsua:

Beror Hika: “Berorrek egin din” ...

Foka: “Jinen gaituff”, ”Hori hala duff” ...


Dunka: “Afrusagoak ditunk berriok” ...

(...)

Norbaitek beti erran lezake bide ortopediko, edo artifiziala dela interbenitzea, bai eta ondoko promoa ere. Ados, alta bertze zeinahi hizkuntzari zilegi zaiona ez diogu horretaz debekatuko gureari; eta are gutiago jostabide izanki.

Arauk ezagutu egin behar dira, horixe baietz, gero arau horiek beroriek transgreditzeko.

Bitxiak zinez oraiko aroak –zerrakeen Gandalfek– komikilariak eta filofiloak elkarrekin, bideetan barrena...



13. Binheta

Nola hasi,

hala

FIN